

ZIENTZI

BERRIAK LABURKI



Joseph Sutter, Boeing Commercial Airplane Company, jakinerazi berri du Boeing hegazkin berri bat aztertzen ari dela 1992.ean airean egongo dena. Hegazkin honek 150 jarleku izango lituzke eta lehenengo prototipoa 1990.era ko airean legoke. Diseinu-aurrerapen batzuk aurkezten ditu hegazkin honek; bi helize bikoitz kontraerrotatiboz, zeintzu hegazkina ren atzekaldean kokatuta egongo bait dira, propulsa tua izango da; gainera a hste izeneko formula era ibli ko du, hegalt

nagusiak atzekaldean izango dira eta bi hegaltxo aurrekaldean izango ditu. Hegalen formula hau ez da berria jadanik zenbait konbate-hegazkinek erabiltzen dutelako.

Sistema berri hauen erabilpenarekin alde batetik erregai-kontsumoa %25ean beheratuko dela eta bestetik maniobrabilitatean, lurrartzean eta lurruztean batez ere, hobatuko dela pentsatzen da.

ZIENTZI

BERRIAK LABURKI

Sergei Nerutzev geologiları errusiarraren ustetan, organismo bizidunek uranioa metatzeko duten ahalmena, gure planetaren historian zehar landaredi eta faunaren bat bateko aldaketak sorterazi zituen, bereziki dinosaurioen bukaera. Biosferaren ustekabeko hilketak hauek 30-40 milioi urtero gertatzen omen dira.

Irakasle honek berriki Leningradon argitaratu duen "Uranioa eta biziaren historia" izeneko liburuan azaltzen du hipotesi hau. Gauza jakina da, Geologi mailan bederen, landeredi eta faunaren desagertze masibo batekin bat egiten duten erroka sedimentarioek uranio-edukin handia dutela.

Nerutzev-ek dioenez, azpimarragarria da eguneko organismo askok beraien bizitzan zehar elementu erradioaktiboak metatzen dituztela zeluletan. Bakterio batzuk esaterako, uranioa absorbatzen dute, ia bere pisu lehorraren erdia izan arte.

Ezaguna da bestalde, dinosaurioak sakonera gutxiko aintzira eta urmaheletan bizi zirela. Haretan berezko uranio-kontzentrazioa handiagoa da. Narrasti erraldoi hauen organismoak ezin izan zuen intoxikazio erradioaktiboa jasan, eta bukatu egin ziren. Dinosaurioen hezurren azterketek, uranio-edukin altuak erakutsi dituzte.


Marraskilo, bare, zizare eta beste zenbait ornogabe gizaseme eta animalientzako proteina-iturri moduan erabil litezke. Baserrietako zimaurrea eta ekosarien hondakinak proteinetan aberats diren produktu bihurtu litezke.

Marraskiloek %16 proteina eta zizareek %60-a dute. Oso interesgarria litzateke hauek zerri eta hegaztien dietei erantsia. Proteina-iturri merkeak lirateke eta era berean leku asko betetzen dituzten hondakinak ezabatu liteke.

Estatu Batuetan joan den Apirilean kaleratu den kontrazeptiboetako buruzko txosten baten arabera umeak izan nahi dituzten amerikar emakumeek ez lukete DIU izeneko metodoa erabili behar. Txosten honen arabera, DIU-a erabiltzen duten emakumeen artean antzutasun-arriskua bikoiztu egiten da.

Antzutasuna inflamazio pelbiko batek eragiten du, zeinak Falopio-tronpak ixten bait ditu. Ixterak, obulua obulutegitik uterora joan dadin daragoza.

DIU-a kontrazeptzio-metodo oso hedatua da zenbait herritan: %50 inguru Txinan esaterako.



Londres inguruan dagoen East Malling-eko arborikultura-zentruan sagarrondo kurioso bat jaió berri da. Pentsa litekeenaren kontra, zuhaitz hau ez da manipulazio genetiko inkontrolatu baten seme monstruoa, naturaren produktu bat baizik. 1960.eko hamarkadan Columbia Britanikoan Wijiak izeneko zuhaixka aurkitu zen. Zuhaixka hau sagarrondo barietate arruntekin gurutzatu denean, adarrak gabeko sagarrondoak lortu dira. Adarrak izan beharrean kokkor modukoak dituzte. Kokkor horretan loreak eta fruituak hazten dira.

Aukeratuak izan diren lau barietateek, momentuz lorezaieen lorategietan izango dute lekua. Halere, hamar bat urte barru, sagarrondo arruntentokia har dezakete sagastietan. Bi abantaila dituzte alde, sagarrondo arruntek baino bi aldiz toki gutxiago behar dute... eta ez dute inausketarik behar.

Arratoia, jakina da, oso animalia moldagarria dela. Edozein egoerari moldatzen zaio. Arrazoin honengatik, beste batzuren artean, da horren ugaria. Baditu gainera beste zenbait birtute:

- Teorikoki arratoi-bikote batek 20 milioi ondorengo izan ditzake 3 urtetan.
- Bosgarren solairutik jauzia, errebote egiten du eta ez zaio deus ere gertatzen.
- Komuneko-zisternaren ur-zorrotada jasan egiten du.




- Hamar ogerlekoko txanpon baten tamainako zulo batetik sar liteke.
- Bere hortzez berunezko hodi bat zula dezake.
- Pozoinen aurka autodefentsa mekanismo bat dauka, horiek igertzen laguntzen dutena...

Baten batek pentsatuko balu bonba atomikoz libra gintzazkela honetaz, jai du. Ozeano Bareko Eniwetok ugartean 43 bonba atomiko leherterazi ziren 1940-tik 1960-era. Nahiz eta inguru horietan gizasemeak 25.000 mila urtez bizitzerik izan ez, egun milaka arratoi bizi dira han eta inolako kalterik jasaten dutenik ez dirudi.

Japoniako Tsukuba Exp-85 bisitatu zutenek beste zenbait gauza harrigarriren artean, ur-tanga batean murgildutako kaxa batean bizirik irauten zuen txorino bat ikusi ahal izan zuten. Ikus irudia. Nola da posible kutxako oxigenoa ez bukatzea? galde egiten zioten ziurki bere buruari.

Erantzuna aurrerabide teknologiko jaioberri batean dago noski. Kutxa zakatz artifizial batzuetara konektatuta zegoen. Zakatz horietan txoriaren arnasketak sortutako karbono(IV) oxidoa uretan disolbatzen zen eta zakatzek uretako oxigenoa absorbatzen zuten kutxako oxigenoa berrituz.



Zakatz bakoitzak 0,3 m-ko diametroa du eta silikonazko kautxu berri batez eginda dago. Kautxu hau gaseri oso iragazkorra zaie, CO₂-ari bereziki.

Pentsatzekoa denez honelako sistemak urperakuntza irauli egingo luke. Halere,

baditu funtsezko eragozpenak bere erabilpen gertua zalantzatzen ipintzen dutenak. Alde batetik, pertsona batek behar duen oxigenoa jadesteko 40 m²-ko gainazala behar da, hots 20.000 horietako zakatz. Bestetik, silikonazko kautxu hau nahiko eragiten du urak, hauskorra bihurtzen delarik.

ZIENTZI

BERRIAK

LABURKI ▽